| **Eraikinaren Ez bizitegi erabilerarekin lotutako azalera zehaztu**<br>EZ bizitegi erabilera: (m2) | **Eraikinaren xede den jarduera**<br>Nekazaritza,abeltzaintza eta arrantza<br>Eraikuntza<br>Ostalaritza<br>Finantza- eta enpresa-zerbitzuak,higiezin-jarduerak eta herri-administrazioa<br>Osasun jarduerak<br>Industria<br>Merkataritza-zerbitzuak eta konponketa<br>Garraioa,biltegiratzea eta komunikazioak<br>Hezkuntza<br>Zerbitzu-sektoreko beste jarduera batzuk |

**Oharrak:**

Azkenik oharren eremu bat agertuko zaigu.

**Birgaitze**-kasuetan, ea obra horrek azalera handitzea dakarren galdetuko da, eta ea obraren helburua bizitegi-erabilera (osorik edo partziaki) den.

Bizitegi-erabilera izango balu, birgaitzearen karakterizaziora bideratuko litzateke (*P9.2*).




Birgaitzeak azalera handitzea dakarrenean, , zehaztu egin beharko da zer azalera handitu den guztira bizitegi-erabilerarako ez den kasuetan; eta, bizitegi-erabilera duten birgaitzeen kasuan, bizitegi-erabilerarako handitutakoa beteko da soilik.

Bizitegi-erabilerarako birgaitzeen kasuan , zehaztu egin beharko da obrak elementu komunei edo etxebizitzei soilik eragiten dien (elementu komunak izan ala ez). Gutxienez etxebizitza bati eragiten badio [2], obra egin aurreko eta obra amaitu ondorengo etxebizitzen kopurua zehaztu beharko da, eta, horrez gain, etxebizitzak tipologiaren arabera sailkatu.

Birgaitzeak bizitegi-erabilerarik ez badu, eraikina zer jarduera ekonomikotara bideratuko den galdetuko da (P8.2).

[2] Familia bakarreko etxebizitzen kasuan, beti zehaztu behar da elementu komunak dituzten edo ez dituzten etxebizitzei eragiten dien




- ***Baja***




Bajaren kausa edo arrazoia zein izan den adierazi beharko da, eta oharren eremu bat ere izango dugu.

- ***Luzapena***

Aukera honetan ez da besterik bete beharko.




## Babes publikoko etxebizitzak eraikitzeko lurzorua lortzea

Galdeketa horren bidez, babes publikoko etxebizitzak eraikitzera bideratutako lurzorua (**zati bat edo osorik)** lortzeak eragindako udal-jardun guztiak bilduko dira.




Galde-sorta honek lau zati ditu:

1. **(*) Lurzorua lortzeko jarduketa mota eta identifikatzeko datuak**. Datu hori nahitaezkoa da. 5 jarduketa motetako bat hautatu beharko da lehenik:

   a. Desjabetzea

   b. Erosketa

   c. Trukatzea Administrazioen artean edo sektore pribatuarekin lurzorua elkartrukatzea, betiere udalaren helburua honako hau baldin bada: azalera hori, osorik edo zati bat, etxebizitza babestua sustatzera bideratzea.

   d. Doako lagapena

   e. Birpartzelazioen onarpena

Hemen aipatu gabeko beste biderik izanez gero, antzekoena markatu eta **Oharrak** atalean zehaztu behar da:

Ondoren eremu hauek daude:

***Espediente-kodea:*** Udalaren barneko gako edo identifikazioa, kudeaketako dokumentua edo dokumentuak, nahiz politikoak sailkatzeko.

***Eskuratutako lurzorua identifikatzeko gakoa:*** Lursailari edo lursailei esleitutako identifikazioa, dela ikuspegi katastraletik, dela hirigintza-ikuspegitik. Katastroko gakoek lehentasuna izango dute.

***Eskuratze-data:*** Desjabetzearen, erosketaren, permutaren... egintza juridikoa zein egunetan izan den eta jasota geratu den adierazi behar da.

## 2. Lurzoruaren kokapena eta ezaugarriak

Helbideari dagozkion hainbat eremu bete behar dira, ahal dela posta-hurbilketako elementu ofizialak baliatuta.

***Lurzoruak hartzen duen eremua, guztira*:** Erosketan, desjabetzean, permutan edo birkalifikazioan eskrituratutako lurzoruaren guztizkoari dagokio. Metro karratutan (m2) adieraziko da. Eremuan bi dezimal jar daitezke.

***Eraikitako azalera guztira*:** Higiezin baten eraikitako guztizko azalera kalkulatzeko, higiezinaren solairu guztietako azalera eraikiak batu behar dira. Sabaiko metro karratuetan (M2T) adieraziko da, bi dezimalekin.

Parametro horri dagokionez, soto eta erdisotoetako azalera eraikia ez da aintzat hartuko. Aitzitik, solairuarteen, atikoen eta teilatupeko aprobetxamenduen azalera beti zenbatu behar da; teilatupeko aprobetxamenduei dagokienez, 1,50 m-tik gorako altuera librea duten area guztiak hartuko dira kontuan.

***Lurzoruaren balorazioa***

| **Aurreikusitako etxebizitzak araubide motaren arabera** | | | | Oharrak |
|---|---|---|---|---|
| Librea | | Zuzenkidura-alokamendua | | |
| **BOE** (Araubide Orokorreko Babes Ofizialeko Etxebizitza) | | Birralojatzeko etxebizitza | | |
| **ES** (Araubide Bereziko Babes Ofizialeko Etxebizitza - EB Soziala) | | **AOUET** (Araubide Orokorreko Udal Etxebizitza Tasatua) | | |
| **BOET** (Erregulazio Autonomikoa duen Babes Ofizialeko Etxebizitza) | | **ABUET** (Araubide Bereziko Udal Etxebizitza Tasatua) | | |
| | | Guztizkoa | | |

3. **Aurreikusitako etxebizitzak erregimen motaren arabera.** Obra handiko lizentziaren galde-sortan bezalaxe, erregimen motaren arabera sailkatzen dira etxebizitzak.

## 4. Oharrak

## Alokairuko etxebizitzak

Alokairuko udal-etxebizitzei buruzko galdeketaren helburua honako hau da: data jakin batean (urte bakoitzeko abenduaren 31n), udalaren jabetzako edo jabekidetasuneko alokairurako parkearen STOCKaren berri izatea, ezaugarrien arabera; horrekin batera, epe motz eta ertainerako aurreikuspenak ere interesatzen zaizkigu.

Hortaz, jabe bakarra izan gabe (Foru Aldundien, Eusko Jaurlaritzaren eta abarren jabetzakoak), udala eta udaleko sozietateren bat alokairurako etxebizitzak kudeatzen ari bada, etxebizitza horiek ere sartu behar dira.

Partikularren etxebizitzak alokairura bideratzen badira udalaren laguntzari eta kudeaketari esker (Eusko Jaurlaritzak ALOKABIDE zerbitzuaren bidez egiten duen moduan), etxebizitza horiek ez dira aintzat hartuko, baldin eta udal-jabetzara igarotzen ez badira.

Funtzionario, apaiz edo, oro har, erlijiosoentzako etxebizitzak sartu behar dira, betiere erabileraren truke kontraprestazioren bat (soldataren bidez ordaindu gabeko zerbitzu bat ematea) edo prezioren bat baldin badago.

Horregatik guztiagatik, galde-sorta hau urte bakoitzeko lehen hilean agertzen da.

Jarraian, galdeketaren bloke horretan agertuko diren zenbait kontzeptu edo termino azalduko ditugu.


Urtea: 2014 Udalerria: Alegría-Dulantzi
Epetik kanpo
Aurreikusita al dago 2009. urtean Udalak edo Udalaren sozietate publikoren batek alokairurako etxebizitzak sustatzea edo eskuratzea? Ez Bai
Alokairurako etxebizitzak eskuratuko dira Ez Bai Zenbat?
Alokairurako etxebizitzak sustatuko -eraiki- dira Ez Bai Zenbat?
Beste alokairu mota bateko etxebizitzak eraikiko dira Ez Bai Zenbat?
Zehaztu GUZTIZKOA
Aurreikusita al dago hurrengo lau urteetan (2015.urtetik 2018.urtera arte) Udalak edo Udalaren sozietate publikoren batek alokairurako etxebizitzak sustatzea edo eskuratzea? Ez Bai
Alokairurako etxebizitzak eskuratuko dira Ez Bai Zenbat?
Alokairurako etxebizitzak sustatuko -eraiki- dira Ez Bai Zenbat?
Beste alokairu mota bateko etxebizitzak eraikiko dira Ez Bai Zenbat?
Zehaztu GUZTIZKOA

**«Aurtengo urtea» aurreikuspena eta «aurtengo urtea+1» aurreikuspena «aurtengo urtea+4» arte*:***

> Udal-etxebizitza baten **alokairu**tzat hauxe ulertzen dugu: elkarrekiko hitzarmen bat; horren bidez, udala edo udal-sozietate berezi bat behartuta dago norbaiti etxebizitza baten erabilera eta luperketa edo gozamena uztera denbora jakin baterako, betiere kontraprestazio edo prezioren baten truke.

Item horietan, aipatutako aldietarako (hurrengo urterako eta hurrengo lau urteetarako) udal-jardunen aurreikuspenei buruzko informazioa eman behar da, betiere jardun horien helburua alokairurako etxebizitzak antolatu edo areagotzea bada.

Aipatutako aldietan garatu beharreko jardunak barne hartuko dira, beste urteren batean (aurrekoak) planifikatu ote diren kontuan izan gabe. Plan zehatzak gauzatzeari buruzko galdera da, ez agenda politikoetan sartutako planen balizko onarpenari buruzkoa, edo helburu bera lortzeko beste hainbat erakunderekin egindako hitzarmenei buruzkoa. Horrela errazagoa izango da eskatutako informazio guztia betetzea.

Udal-parkea sortzeko/handitzeko bi bide zehatz eskaintzen dira: erosketa, sustapena eta/edo eraikitzea. Eta gainera, beste aukera ireki bat ere badago, zehaztu beharrekoa.

Guztizkoak egiaztatu egin behar dira.

Alokairuko etxebizitzen aukera eta kopurua. Aurreko urteko abenduaren 31 erreferentziatzat hartuta, alokairurako udal-jabetzako etxebizitzarik ba ote den adierazi behar da. Udalerri txikia izateagatik horrelako etxebizitza bakarra (parrokia-etxea, irakaslearen etxea, eta abar) badu ere, adierazi egin behar da.


Ba al zuen Udalak edo Udalaren sozietate publikoren batek **31/12/2013n** alokairurako etxebizitzarik jabetzan? Ez / Bai — Zenbat?

Zer **azalera erabilgarri** dute etxebizitza horiek eta zein da **hileko batez besteko errenta**?

| | Zenbat? | Hileko batez besteko errenta |
|---|---|---|
| 45 m2 baino gutxiago | | |
| 45 m2-tik 75 m2-ra | | |
| 76 m2-tik 90 m2-ra | | |
| 90 m2 baino gehiago | | |
| GUZTIZKOA | | |

**Okupazioari dagokionez,** zer **egoeratan** daude Udal jabetzeko alokairurako etxebizitzak **31/12/2013n**?

| | Zenbat? |
|---|---|
| Okupatuak | |
| Desokupatuak, baina erabiltzeko moduan daudenak | |
| Obrengatik desokupatuak, birgaitzea | |
| Desokupatuak, beste arrazoiengatik ezin da etxebizitzara sartu | |
| Zehaztu (Desokupatuak, beste arrazoiengatik ezin da etxebizitzara sartu) | |
| GUZTIZKOA | |

Zein da Udalaren jabetzeko alokairurako etxebizitzen **araubide mota**?

| | Zenbat? |
|---|---|
| Librea | |
| **BOE** (Araubide Orokorreko Babes Ofizialeko Etxebizitza) | |
| **ES** (Araubide Bereziko Babes Ofizialeko Etxebizitza - EB Soziala) | |
| **BOET** (Erregulazio Autonomikoa duen Babes Ofizialeko Etxebizitza) | |
| Zuzenkidura-alokamendua | |
| Birralojatzeko etxebizitza | |
| **AOUET** (Araubide Orokorreko Udal Etxebizitza Tasatua) | |
| **ABUET** (Araubide Bereziko Udal Etxebizitza Tasatua) | |
| GUZTIZKOA | |

**Gutxi gorabehera,** zer **antzinatasuna** dute udalaren jabetzako alokairurako etxebizitzek?

| | Zenbat? |
|---|---|
| 60 urte eta gehiago dituztenak (-1954. urtean edo lehenago eraikiak -) | |
| 30 urtetik 59 urtera dituztenak (-1955 a 1984. urteen artean eraikiak -) | |
| 10 urtetik 29 urtera dituztenak (-1985 a 2004. urteen artean eraikiak -) | |
| 9 urte edo gutxiago dituztenak (-2004. urtetik aurrera eraikiak -) | |
| GUZTIZKOA | |

## «Aurtengo urte»ko datuak

**Azalera erabilgarria:** Azalera erabilgarria zera da, etxebizitzaren kanpoko hormen barruan hartutako metro karratuak.

Ezein dokumentutan jasota ez dagoelako, etxebizitzen azalera erabilgarria zehatz-mehatz zenbatekoa den ez badakigu, gutxi-gorabeherako zifra bat eman behar da.

Esleitu beharreko errenta erreferentzia-dataren urteko abendukoa izango da, eta udalak berak ezarritakoarekin bat etorri behar du, kobratu den edo ez den kobratu alde batera utzita.

**Batez besteko errenta** izan behar **;** izan ere, azalera berdina eta errenta ezberdina duten etxebizitzak (beste zona batean daudelako) baldin badaude, batez besteko haztatua kalkulatu ahal izateko formula jakin bati jarraiki, hain zuzen ere, obra handiko lizentziari buruzko galdeketako (B blokea) 13. galderan aurkeztutako formulari.

Guztizko guztiak zuzenak direla egiaztatuko da, baita 2. galderakoekin koherenteak direla ere.

**Egoera parkearen abenduko okupazioari dagokionez.** Alokairuko etxebizitzak abenduaren 31n duten egoeraren arabera banatuko dira (abenduan zehar, alokairu-kontratuak egun horretan bertan amai bailitezke); lehen hiru kasuek (okupatuak, hutsik baina erabilgarri eta hutsik obrengatik/birgaitzeagatik) ez dute azalpenik behar, antza; laugarren kasu bat utzi da okupazioaren gaineko auzirik dagoen kasuetarako, jabetzaren gaineko eztabaida dagoenerako..., azken horiek zehaztapenen atalean edo oharrenean jaso beharko dira.

**Erregimena.** Etxebizitzen sailkapena erregimen motaren arabera.

Printzipioz, eta salbuespeneko kasuetan izan ezik (kontraprestazio motaren baten eskaera: auzo-lanak...), ez dira alokairuko erregimenekotzat hartuko birkokapenera bideratutako etxebizitzak.

Adierazitako guztizkoa eta batugaiak bat datozela egiaztatu behar da.

**Gutxi-gorabeherako antzinatasuna.** Alokairuko etxebizitzen zeharkako konfort-adierazle bat izate aldera, etxebizitzak eraikitzealdiaren arabera sailkatzea eskatzen da. Erregistroko informazioa edo espediente administratiboetatik eratorritako informazioa izanez gero, galdeketaren estratuetan adierazi beharko da. Bestela, eraikinaren batez besteko antzinatasunean oinarrituta, edo auzoa edo etxe-uhartea eraiki ziren garaia kontuan izanik, etxebizitzen gutxi-gorabeherako antzinatasuna adierazi behar da.

Etxebizitzak kokatzen diren zonaldea noiz sortu edo handitu zen ez badakigu, ezta gutxi-gorabehera ere, garai ezberdinetako eraikinak nahastuta daudelako, modu subjektiboan balioesteko ahalegina egin behar da, honako irizpide hauei jarraiki:

- **«Berritzat»** hartzen badira, 9 urte edo gutxiago dituztela jarriko dugu.
- Berriak ez, baina «**azken aldikoak**» direla uste badugu, 10-29 urte bitarte dituztela jarriko dugu.
- **«Etxebizitza zaharrak»** kontzeptupean sartzen baditugu, 30-59 urte bitarte dituztela jarriko dugu.
- Antzinako etxebizitzak, aldiz, 60 urte edo gehiago dituztenak izango dira.

Etxebizitza kokatua dagoen eraikinean erabateko edo egiturazko berrikuntza (etxebizitzen antolamenduari ere eragin diola) izan bada, birgaitzeko urtea hartuko da eraikitzeko urtetzat.

Guztizkoak kontu handiz egiaztatu behar dira, eta aurreko galderetan idatzitakoarekin bat datozela ziurtatu.

*Zein da etxebizitzen **azalera erabilgarria**?*

***Azalera erabilgarria*** zera da, etxebizitzaren kanpoko hormen barruan hartutako metro karratuak.

*Zein da udal-etxebizitza tasatuen **batez besteko salmenta-prezioa m2 bakoitzeko** (eurotan)?*

***1.-Etxebizitzaren m2 bakoitzeko prezioa:** Etxebizitzaren prezioa zati etxebizitzaren m2 kopurua eginda kalkulatzen da.*

***2.- Batez besteko salmenta-prezioa***, lizentzian hainbat preziotako etxebizitzak baldin badaude, batez besteko haztatuaren bidez lortzen da:

***Batez besteko salmenta-prezioa m**2 bakoitzeko= $\frac{n_1 x_1 + n_2 x_2}{n_1 + n_2}$

***Non:***

$n_i$ ***= i motako etxebizitzen kopurua***

*i EOUET izan daiteke (Erregimen orokorreko udal-etxebizitza tasatua)*

*edo EBUET izan daiteke (Erregimen bereziko udal-etxebizitza tasatua)*

*especial)*

$x_i$ ***= i motako etxebizitzaren m2 bakoitzeko prezioa***

***Adibidez:** Demagun honako datu hauek ditugula:*

***- 15 EOUET; 7 etxebizitza 90 m2-koak dira** (m2 bakoitzeko prezioa**1.300 euro**)*

***8 etxebizitza 70 m2-koak dira** (m2 bakoitzeko **1.250 euro**)*

***-12 EBUET; 5 etxebizitza 90 m**2**-koak dira** (m2 bakoitzeko prezioa ***1.700 euro***)

***7 etxebizitza 120 m2-koak dira**(m2 bakoitzeko prezioa **1.750 euro**)*

*Hori horrela, m2 bakoitzeko batez salmenta-prezioa honako formula honen bidez lortuko dugu:*

$$\frac{7 \times 1300 + 8 \times 1250 + 5 \times 1700 + 7 \times 1750}{7 + 8 + 5 + 7} = 1475{,}93 \text{ euro}$$

**Oharrak** atalean, galdeketako gainerako galderetako aukerekin bat ez datozen kasuak jaso daitezke. Beraz, idatz-zati horretan ematen den informazioarekin datu interesgarriak bil daitezke; hain zuzen ere, bestela alde batera geratuko liratekeen datuak.

# GLOSARIOA

**Alokairua:** Udal-etxebizitza baten alokairutzat hauxe ulertzen dugu: elkarrekiko hitzarmen bat; horren bidez, udala edo udal-sozietate berezi bat behartuta dago norbaiti etxebizitza baten erabilera eta luperketa edo gozamena uztera denbora jakin baterako, betiere kontraprestazio edo prezioren baten truke.

**Zatizko eraispena:** Birgaitzeko obretan soilik egiten da. Eraispenerako eta birgaitzerako lizentzia batera doa.

**Aldez aurreko erabateko eraispena:** Badagoen eraikin bat erabat eraistea edo desagerraraztea da, beste bat eraiki aurretik. Eraispena eta horren osteko eraikuntza lizentzia beraren babespean daude.

**Soilik erabateko eraispena:** Eraikinak desagerrarazten ditu, eta lizentzian ez da eskatzen eraikin berria eraikitzerik.

**Eraikina**: Lursailaren gaineko eraikuntza iraunkor finkoa, estalkiduna eta kanpoko hormen edo mehelinen bidez mugatua.

**Bizitegi-eraikina:** Eraikuntza baten azaleraren (sotoak eta behealdeak kanpo utzita) % 50 baino gehiago familia-etxebizitzetara edo bizitoki kolektiboetara bideratuta dagoenean.

**Bizitegikoak ez diren eraikinak:** erabilera nagusia jendea bizitzea ez duten beste guztiak, eliminazioz. Erabileraren arabera, honako hauek izan daitezke:

- **Nekazaritzako, abeltzaintzako edo arrantzako ustiapenak:**

  Erabilera nagusi horiek dituzten eraikin guztiak sartu behar dira kategoria honetan, baldin eta zuzenean edo zeharka, ustiapen mota horietara bideratzen badira eta bertan kokatzen badira; esate baterako, hegazti-granja baten administraziora bideratutako eraikin baten kasuan, granjan bertan kokatua baldin badago kategoria honetan sartuko dugu, baina hirian kokatua baldin badago, zerbitzu burokratikotzat hartuko dugu.

- **Industriak:**

  Nekazaritzako ustiapenaren kasuan adierazitako irizpide berdinak aplikatuko dira.

- **Garraioak eta komunikazioak:**

Irizpide berdinak aplikatuko dira, baina kontuan izan behar da honako hau: eraikinak askotariko erabilerak baldin baditu (adibidez, bidaiarien irteerak, leihatilak, administrazioa), betiere jarduera horretara bideratuta, garraioen kategoria honetan sartuko da.

- **Biltegiak:**

Eraikin mota horren erabilera biltegi hitzaren esanahi zorrotzetik ondoriozta daitekeena da; beraz, kategoria honetan sartu behar dira salgaiak gordetzera bideratutako eraikinak. Horretaz gain, erabilera hori izan beharko dute funtzionamenduaren erabateko autonomiarekin; horrela, bada, industria-nabe bat fabrikaren ondoan badago eta produktuak edo lehengaiak biltegiratzeko erabiltzen bada, erabilera industriala duela esango dugu, ez biltegi-erabilera. «Saltoki handiak» ez dira maila honetan sartuko, baizik eta Merkataritza Zerbitzuetan.

- **Elizak eta beste erlijio-eraikin batzuk (bizitoki ez direnak):**

Katolikoa edo beste edozein sinesmenekoa izan, gurtzarako eraikinak maila honetan sartuko dira. Helburu nagusia kontuan izango da bizitoki edo irakaskuntza-zentro bezala ere erabiltzen direnean.

- **Zerbitzu burokratikoak (bulegoak):**

Eraikin horien erabilera nagusia erakunde publiko edo pribatuen administrazioa da, bestelako jarduerarik (merkataritzakoak, esaterako) egiten den gorabehera.

- **Merkataritza-zerbitzuak:**

Eraikinak maila honetan sartzeko, erabilera nagusia ondasunen salmenta izango da. Zerbitzuak saltzera bideratutako eraikin batek (banku-sukurtsala, adibidez) bulego baten antz handiagoa du denda batena baino, eta horregatik, burokratikotzat hartuko dugu.

- **Osasun-zerbitzuak:**

Zuzenean gizakien edo animalien osasun-premiak betetzera bideratutako eraikin publiko edo pribatuak sartzen dira kategoria honetan. Beraz, ez dira sartuko honako jarduera hauek hartzen dituzten eraikinak: osasun-helburuak zeharka lortzera bideratutakoak; esate baterako, farmaziako produktuen fabrika bat, farmazia bat edo erizaintza-eskola bat.

- **Jolas- eta kultura-zerbitzuak:**

Atal honetan adierazitako zerbitzuak, doakoak izan edo ez, eskaintzen dituzten eraikinak sartu behar dira, baina kategoria honetan ez da ondasunen eskaintza sartu behar, horiek kultur arlokoak izanik ere: liburu-denda baten edo arte-galeria baten erabilerak, adibidez, eraikina, kulturakoa beharrean, merkataritzakoa izatea ekarriko du.

- **Hezkuntza-zerbitzuak:**

Irakaskuntzara bideratutako eraikinak sartu behar dira, irakaskuntza publikoa edo pribatua, doakoa edo ordainduta den kontuan izan gabe.

- **Bestelakoak:**

Hondar-kategoria honetan sartuko dira aurreko kategoriekin bat ez datozen eraikinak. Hainbat erabileraren artean zalantza izateak ez du esan nahi eraikina maila honetan sartu behar denik; izan ere, hasiera batean oso kasu gutxi bildu behar dira maila honetan. Eraikin horien erabilera «Oharrak» atalean aipatu behar da.

**Oin berriko obra:** Obra handia da, eta eraikin berri bat eraikitzea dakar, aldez aurretik beste eraikin bat erabat eraitsita edo eraitsi gabe.

**Birgaitzeko obra:** Obra handia da, baina aurrekoak ez bezala, ez dakar eraikin berria eraikitzea, baizik eta eraikitako eraikinen gainean jarduten da, aldez aurretik zatizko eraispenak eginda edo egin gabe. Bi motatakoa izan daiteke:

**Handitzeko obra:** Eraikitako azalera handitzen denean, egiturazko elementu berriak erantsita. Handitze hori bertikalean egin daiteke, lurzoruaren gainean okupatutako azalera areagotu gabe (adibidez, beste solairu bat erantsita), edo horizontalean, eta kasu horretan, lurzoruan azalera gehiago eransten da.

**Erreforma- eta/edo zaharberritze-obra:** Eraikinaren azalera eraikia aldatu gabe, eraikinaren egiturazko elementuren bat aldatzen denean edo lehendik ez zegoen hornidura berriren bat ezartzen denean.

**Eraispen-obra**: Eraikin oso bat edo eraikin baten zati bat eraistea da.

**Eraikinak okupatuko duen lursailaren gaineko azalera:** Eraikinaren lerro perimetralaren proiekzio ortogonalak lurraren edo lursailaren gainean mugatutako metro karratuak, hegada eginez ateratzen diren eremuak barne hartuta, hala nola, arkupeak, balkoiak, eta abar. Azalera hori ezinbestean eraiki beharreko azalera baino txikiagoa edo berdina izango da.

**Proiektuaren eraginpean hartutako lursailaren azalera:** Eraikina(k) eraikiko d(ir)en orube edo partzelak dituen metro karratuak. Ez da izango eraikinak okupatuko duen lursailaren gaineko azalera baino txikiagoa.

**Eraiki beharreko azalera:** Oin berriko eraikinetan, eraikitako eraikinaren solairu guztien azalerak batuta ateratzen diren metro karratuen guztizkoa da, itxitura bertikalaren kanpoko lerroaren barruan eta, dagokionean, mehelinen ardatzak.

**Azalera erabilgarria:** Soilik etxebizitzari dagokio, eta erabilera horretara bideratutako metro karratu «erabilgarriak» hartzen ditu barnean; kanpoko itxituraren barruko aldea hartzen da mugatzat, edo eraikin bereko beste etxebizitza edo lokaletatik bereizten duen hormaren barruko aldea, hau da, eraikinaren zona komunak, trenkaden lodiera, baoak, eta abar kontatu gabe.

**Etxebizitza:** Honako hau da etxebizitza: hainbat gela eta elementu erantsi dituen esparrua; eraikin oso bat izan daiteke (familia bakarreko etxea), edo eraikinaren zati bat, eta kasu horretan, gainerakotik bereizita eta independente egongo da egituraz. Jendea bizitzeko pentsatua dago, ohiko moduan kide bat edo gehiagoko familiak, eta bide publikotik edo esparru komun pribatuetatik sarbide zuzena izaten du. Etxebizitza mota hauek daude:

- **Librea:** Babes publikoko inolako erregimenen eraginpean ez dagoen etxebizitza.
- **(BOE) Erregimen Orokorreko Babes Ofizialeko Etxebizitza:**

  Babes Publikoko Etxebizitza, baldintza jakin batzuk betetzen dituena azalerari, diseinu-arauei eta kalitateari dagokionez. Administrazioak ezarritako gehieneko salmenta- eta errenta-prezioak ez ditu gainditu behar, eta pertsona fisikoen ohiko bizileku iraunkor izan behar du.
- **(ES) Erregimen Bereziko Babes Ofizialeko Etxebizitza edo Etxebizitza Soziala:** Babes Publikoko Etxebizitza, diru-sarrera txikiagoak dituzten gizarte-sektoreetara bideratua; gehieneko salmenta- eta errenta-prezioak txikiagoak dira babes ofizialeko gainerako etxebizitzetan aplikatu beharreko erregimen orokorrean ezarritakoak baino**.**
- **(BOET) Babes Ofizialeko Etxebizitza [Erregimen Tasatukoa], autonomia-erkidegoko araudiaren araberakoa:** Babes Publikoko Etxebizitza mota horrek erreferentziako bi parametro garrantzitsu ditu: salmenta-prezioa eta eskatzaileen diru-sarrerak; salmenta-prezioari dagokionez, ezin izango du gainditu erregimen orokorreko BOEen prezioa 1.7 aldiz, eta eskatzaileen diru-sarrerak, ordea, ez dira izango erregimen orokorreko BOEen onuradunen gehieneko sarrerak baino 1.3 aldiz handiagoak.
- **Zuzkidura Alojamendua:** Bizileku-eraikina, titulartasun publikokoa, etxebizitza babestuaren arloan aurreikusitako laguntzen laguntzarekin eta erabiltzaileek aldi baterako okupatuta, zuzenbidean onartutako edozein formularen bidez (errentamendua, logela-eskubidea, usufruktoa...) eta, zuzkidurakoa izaki, ezin izango da saldu inolaz ere.

- **Birkokapena:** Etxebizitza babestua, hiri-biziberritzeko jardunetan maiz agertu ohi den arazoa konpontzera bideratua, arazo horrek etxebizitza jakin batzuk eraistea edo uztea baitakar berekin, aldi baterako edo behin betiko. Eraitsi edo utzi beharreko etxebizitza horiek agian oso zaharrak izan daitezke, baina bizilagunentzat oraindik baliagarriak ziren.
- **(EOUET) Erregimen Orokorreko Udal Etxebizitza Tasatuak .** Babes Publikoko etxebizitzak, udalek zuzenean sustatzen dituztenak; salmenta-prezioa eta onuradunen gehieneko diru-sarrerak ez ezik, onuradunek bete beharreko baldintzak eta jarraitu beharreko esleipen-prozesua ere erabaki dezakete udalek.
- **(EBUET) Erregimen Bereziko Udal Etxebizitza Tasatuak**: Babes Publikoko Etxebizitza mota horrek erregimen tasatu autonomikoko BOEen ildo berari jarraitu behar dio, hau da, erreferentziako bi parametro garrantzitsu ditu: salmenta-prezioa eta eskatzaileen diru-sarrerak; salmenta-prezioari dagokionez, ezin izango du gainditu erregimen orokorreko BOEen prezioa 1.7 aldiz, eta eskatzaileen diru-sarrerak, ordea, ez dira izango erregimen orokorreko BOEen onuradunen gehieneko sarrerak baino 1.3 aldiz handiagoak.